

Paris 365 gidaliburua

Gizakia Herritar Fundazioa

948 222 425 | paris365@paris365.org

www.paris365.org

# pertsona

todos los derechos para todas las personas



*alimentando solidaridad  
elkarkidetasuna elikatuz*

Justicia Social Sostenibilidad  
Ekologia Derechos Humanos Pertsona  
Zerbitzu Publikoa Askatasuna Ética  
Auzolan Kultura Solidaridad Paz  
Activismo Participación Social Igualdad Berreitzale  
Economía Solidaria Consumo Responsable  
Comercio Justo

PARIS 365 ESKULIBURUA  
GIDALIBURUA

Gizakia Herritar Fundazioa, *Paris 365 jantoki solidarioaren* eta haren baitan larrialdiko hainbat baliabideren sustatzaile denak, 2009ko ekainean abiatu zuen bere jarduera. Erakunde sozial, independente, ez-konfesional, irabazi asmorik gabekoa eta interes orokorrekoa da, eta Giza Eskubideen zein Justizia Sozialaren aldeko lanean dihardu.

- I. Fundazioaren helburuak.
- II. Misioa, ikuspegia eta balioak.
- III. Fundazioaren gobernu-organoak.
- IV. Etika-kodea.
- V. Organigrama eta Zuzendaritza-Batzordea.
- VI. Ekintza esparrua.
- VII. Eskubide eta Eginbeharren Gutuna.
- VIII. Istripu-asegurua.
- IX. Iradokizun eta Erreklamazioak.
- X. Sare sozialak.
- XI. Bazkideak.
- XII. Ekonomia eta Jardueren Memoria. Kanpoko kontu-ikuskaritza.

# I. FUNDAZIOAREN HELBURUAK

---

1. Gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenei, etorkinei eta oro har edozein indarkeriaren biktima diren pertsoneri gizarteratzen laguntzeko zerbitzu integralak eskaintzea, hala nola informazioa, prestakuntza, orientazioa, aisialdia, akonpainamendu soziala, laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridiko personalizatua.
2. Zuzeneko edo berezko-baliabideen bitartez, administrazio publikoen edota beste administrazio sozial zein partikularren baliabideak erabiliz, bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden pertsoneri oinarrizko beharrak asebetetzeko baliabideak eskaintzea. Multzo honetan sartzen dira arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio edo sinesmen, iritzi politiko edo beste arrazoiren bat dela medio aipatu oinarrizko beharrak asebetetzeko zailtasunean dauden kolektiboak.
3. Bazterketa sozialeko egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen integrazio sozio-laborala sustatzea hainbat jardunbideren bitartez; langabetuei arreta eskainiz, bitartekaritza laborala baliatuz, ekintzaitza soziala bultzatuz, ekonomia sozial edo solidarioko irabazi asmorik gabeko enpresak sortuz edota txertatze sozio-laboraleko zentroak bultzatuz.
4. Bazterketa sozialeko egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzeko, kualifikazio profesional, gaitasun laboral eta gaitasun pertsonal eta profesionalen hobekuntzan eragitea. Izan ere, aipatutako faktoreak lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziekin dauden pertsonentzat giltzarri dira.
5. Ekintza komunitarioa eta boluntarioritza nazionala eta nazioartekoa sustatzea.
6. Hartara, hiritarren parte hartzea kanalizatzen lagunduko du Fundazioak, arazo sozialei irtenbidea emateko inplikazioa bilatuz eta gizartetik kanpo edo baztertuta daudenengan lotura sozialak sortuz eta indartuz.
6. Genero bazterkeriaren aurrean, berdintasun printzipioak sustatzea. Aipatutako printzipioak Fundazioaren funtzionamendu eta helburuetan txertatuko dira, bizitza profesional, laboral eta pertsonalaren kontziliazioan eraginen duten ekintzak sortuz, emakumezkoen parte-hartzea eta prestakuntza eskainiz, pairatzen duten diskriminazioa erazuz, eta, oro har, beren ahalduntzea hobetzeko proiektuak garatuz.
7. Familiei babesa eskaintzeko programak garatzea; batik bat, arretazkoak eta bereziki haurtzarokoak eta gazteenak, beren garapen fisikoa zein afektiboa garatzeko helburuarekin, eta inguruko haurrekin erlazio sozialak eraikitzen lagunduz.
8. Laguntza programak garatzea, hirugarren adinekoen, etxegabetuen, ezindu fisiko nahiz mentalen, intelektual eta sentsozialen, alkoholarekiko nahiz beste substantzia toxikoekiko mendekotasuna duten edota ahultasun sozialeko egoeran bizi diren pertsonen garapen eta integrazioa sustatuz, eta beren garapen fisiko eta afektiboan aurrera egin dezaten lagunduz.
9. Laguntza programak garatzea, liberategabezia edo presoaldia jasan duten pertsonentzat, espainiar estatuan asilo-politiko eskatu dutenentzat nahiz arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoengatik pertsekuzioa jasan dutenentzat.

10. Pertsonen eta herrien arteko aniztasun kulturala, tolerantzia eta diskriminaziorik eza indartzea.
11. Aurreko puntuetan aipatu diren pertsona eta kolektibo guztiendako promozio pertsonal, analisi sozial, zerbitzu eta babesa emateko egiturak sortu eta kudeatzea.
12. Ikerlanak, seminarioak, eztabaidak, liburutegiak, dokumentazio zentroak, garapenerako laguntzak... sustatu, bultzatu eta antolatzea eta, oro har, kulturarekin, zientzia politiko eta sozialekin eta nazioarteko lankidetzarekin zerikusia duten ekintza eta ekimen guztiak sustatu, bultzatu eta antolatzeari.
13. Gogoeta politiko, sozial eta kulturaletarako eremu izatea, ideia eta proposamenen pentsamendu-zentroa.
14. Errepresentazio instituzionalaren eta zerbitzu publikoen kudeaketarako tratatze tekniko eta politikoa, eta, oro har, Fundazioak zehaztutako helburuen zabalkundearen arituko diren lantaldeen prestakuntza.
15. Argitalpenak eta komunikabideak sustatu, bultzatu eta kudeatzea, eta horien artean teknologia berriak erabiliz sor litezkeenak.
16. Aurretik aipatu diren jarduera edota gizatalde bakoitza artatzeko GIZAKIA HERRITAR Fundazioak berariazko sekzioak sortu ahal izango ditu, zeinetan automatikoki eta bakoitzak bere arduradun eta antolamenduari funtzionatu ahaliko duen, betiere, Fundazioko Patronatuaren gainbegiratuarekin.
17. Gizakia Herritar Fundazioak behar adina programa, proiektu, proposamen eta plan egin ditzake aurretik aipatu diren helburu fundazionalak asebetetzeko eta, horiek gauzatzeko, behar adina hitzarmen, kontratu eta akordio sinatu ahal izango du administrazio eta erakunde publikoekin zein entitate ekonomiko eta sozialekin.
18. Aurretik zerrendatu diren helburuak gauzatu ahal izateko, baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen bilatzea, administratzea eta kudeatzea.

**BAZKIDE**  
IZAN NAHI?

**PARIS 365**

JUSTIZIA SOZIALAREN ETA  
GIZA ESKUBIDEEN ALDE

eskubide guztiak pertsona guzientzat

PARIS 365

**Diruz lagundu nahi baduzu,**  
etxeko edo zure lantegiko jan-edateko soberakinekin,  
gure proiektuetan bolondres modura parte hartu nahi baduzu,  
edo Gizakia Herritar Fundazioko bazkide izan nahi baduzu,  
urtean 20€ko laguntzatik hasi eta, hartara, Giza Eskubideen  
eta Justizia Sozialaren alde daramazkigun jarduerak  
bultzatu eta sustatuz,  
**jar zaituz mesedez gurekin harremanetan**  
**948 222425** telefonoan edo  
**paris365@paris365.org** e-Postara idatziz.  
**Egiten duguna gara!**

## II. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

---

### MISIOA

Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundea gara. Batez ere boluntarioen lanari esker, gure egitekoa da gizarte bazterketa pairatzeko arriskua haurtzaroan prebenitzea eta jendartean ahulen dauden pertsonen bizi baldintzak hobetzen laguntzea. Funtsean, komunitate osoaren auzolanari esker, inklusiboagoa izanen den gizartea erdietsi nahi dugu, horretarako ekonomia soziala eta solidarioa sustatuz, gure zerbitzuen onuradun diren pertsonen parte-hartzea bilatuz eta giza eskubideak eta justizia soziala pertsona guztientzat erdietsiz.

### IKUSPEGIA

Gure erakundea askotarikoa eta desberdina da, zeharka barnertua Nafarroako jendarte-egituran, gizarte ekimenetik abiatuta aukera berdintasunean eta justizia sozialean oinarritua egonen den gizartea eraikuntzen laguntzen duena, eta guztientzat bitzitza duina bermatzen duena.

### BALIOAK

1. Pertsonengan irmoki sinesten dugu, beren ekintza gaitasunean eta aldaketarako aukeretan.
2. Kooperazio sozialean oinarrituko den gizartea dugu helburu, zeinean partaide diren pertsonak beren gain hartuko duten gizarteko arazoei aurre egiten laguntzeko konpromisoa, eta beren jarduerak, bakartze-soziala gainditzeko eta gizarte-kohesioa sortzeko lagungarri diren neurrian, gizarteari 'balioztatze soziala' eskainiko dioten.
3. Fundazioaren zerbitzuak darabiltzaten pertsonen parte-hartze aktiboa laguntzen dugu, ahalduz prozesu indibidualak zein taldekoak sustatuz.
4. Pertsona eta herri guztien kultura eta ohiturak errespetatzen ditugu.
5. Kudeaketa eraginkor eta gardena aplikatzen dugu, bikaintasun goreneko maila erdiestea helburu duena.

### III. FUNDAZIOAREN GOBERNU-ORGANOAK

---

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren gobernua bere patronatuari dagokio, gutxienez 5 eta gehienez 13 pertsonak osatua, eta beraien artean lehendakari, lehendakarioorde, idazkari, diruzain eta bokal funtzioak beteko dituzte.

Patronatuko kidearen kargua doakoa, aldaezina eta iraupenean mugagabea da. Halaber, Fundazioaren kudeatzaile, ahal-dun eta enplegatu izatearekin bateraezina

da eta galerazia du Fundazioarekin inolako merkataritza erlaziorik izatea.

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioa desagertu ondotik, inolako ondasun edo eskubiderik geldituko balitz, horiek interes orokorreko helburuetara pasako dira, nagusiki desagertutako fundazioaren antzeko xedeak dituzten fundazio eta erakundeetara.

### IV. ETIKA-KODEA

---

1. Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazio-ko patronatuko kideetarik inork ez du haren kide izanagatik ordainik jasoko. Era berean, ezin izanen du Fundazioaren enplegatu izan.
2. Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioak sustatutako proiektuak ekonomikoki berariaz kontabilizatuak izanen dira, ahal den heinean, unean-unean irizpide legalek diotenari jarraituz.
3. Jardueren Urteko Txostena Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioak bere baitan dituen baliabide eta zerbitzu desberdinen laburpenez osatuko da, urtero urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte burututako jardueri erreparatuz.
4. Urteko Ekonomia Txostenak kanpoko kontu-auditoretza izanen du, eta txosten hori Eranskin gisa bilduko da Urteko Ekonomia Txostenean.
5. Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren txostenak publikoak izanen dira, eta Fundazioaren web orriaren bitartez ([www.paris365.org](http://www.paris365.org)) kolaboratzaile pribatuen eta instituzionalen esku jarriko dira horien berri izan dezaten.
6. Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioa desagertu edo deseginen balitz, bere ondarea interes orokorreko helburuetarako emanen da, ahal dela antzeko helburuak dituzten fundazio edo organismoen mesedetan.

## V. ORGANIGRAMA ETA ZUZENDARITZA-BATZORDEA

---

### Organigrama:

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren organigrama [www.paris365.org](http://www.paris365.org) web orrialdean dago ikusgai modu iraunkorrean.

### Patronatua:

Gizakia Herritar Fundazioaren gobernu organoa patronatuari dagokio, 5-10 pertsonen artean osatua, eta hauen artean izendatuko dira lehendakari, lehendakariorde, idazkari eta diruzain karguak hartuko dituztenak.

Gizakia Herritar Fundazioaren ordezkaritza patronatuko hiru pertsona hauen arretetik bik beteko dute, zeinahi direla ere, elkarrekin edo batera: Patxi X. Lasa Aristu, Juan Carlos Longás García eta María Elena García Cortes.

### Koordinatzaile-kudeatzailea:

Gizakia Herritar Fundazioaren barne antolamenduari dagokionez eta patronatuak horrela aginduta, Koordinatzaile-Kudeatzaileak izanen du botere betearazle osoa.

## VI. EKINTZA ESPARRUA

---

### Baliabideak:

- a) Paris 365 jantoki solidarioa, San Lorenzo kalea 31/behea. Tel. 948 050911.
- b) Janaritegi solidarioa Paris 365, Anelier Pasealekua, 11/ behea.
- c) Zopa Beroa Paris 365, San Lorenzo kalea 31/behea. Tel. 948 050911.
- d) Txoko Paris 365, San Lorenzo kalea 31/behea. Tel. 948 050911.
- e) Paris Etxea 365-Etxebizitza komunitarioa, San Lorenzo kalea 31/behea, Tel. 948 050 911.
- f) GARABATO ikasketa komunitatea, San Lorenzo kalea 19/21-behea, Tel. 948 030 904.

### Ekintzailletza sozialak:

- a) Catering Paris 365, Mutilva Poligonoa, P kalea, 27 nabea, Tel. 948 248 434.
- b) Paris 365 Denda, San Anton kalea, 47/behea, Tel. 948 220 825 eta Nagusia kalea, 57/behea.

### Borondatezko bulegoa:

- a) Boluntario harrera zerbitzua eta akonpainamendu bulegoa, Nagusia kalea, 75/behea, Tel. 948 222 425.

### Erregistroa:

Boluntario guztiek Boluntarioen Bulegoan izena emanak egon behar dute. Hartara, erregistro zentral honen bitartez kudeatuko da boluntario guztien filiazioa, eta berau, aldiari-aldiari eta urtero abenduaren 31n eguneratuko da.

### Eskubideak:

1. Arraza, genero, erlijio edo sinesmen, egoera sozial zein iritzi politikoengatik bazterketarik ez jasateko eskubidea.
2. Fundazioak dituen helburu, jarduera eta arauen informazio eta ezagutza eskubidea.
3. Borondatezko parte-hartze egokia eta eraginkorra lortze aldera, beharrezko prestakuntza jasotzeko eskubidea.
4. Fundazioaren boluntario gisa akreditatua izateko eskubidea. Boluntarioak aipatu akreditazioa bi urtero berri-ri zaharko du, gainerakoan erregistrotik ezabatua izanen baita.
5. Boluntario-jarduera gauzatzen den arloaren inguruko kexak eta iradokizunak egiteko eskubidea.
6. Fundazioaren errekurtsioak eta zerbitzuak hobetze aldera, idatzizko ekimenak aurkezteko eta iradokizunak egiteko eskubidea.
7. Fundazioaren baliabide, zerbitzu edo ekintzazailtza sozialeko egitasmoetan plaza huts bat dagoen kasuetan edota halakoren baten beharrik balego, borondatez parte hartzeko eta ekintzak burutzeko eskubidea, betiere, antolakuntza mailako arazoaren batek hori galerezko ez balu.
8. Boluntarioen Batzar Orokorretara joateko eta Fundazioaren Urteko Jarduera eta Ekonomia Txostenen inguruko ezagutza, azalpena eta sarbidea izateko eskubidea. Era berean, Urteko Kontu-ikuskaritzara sartzeko eta Fundazioaren edozein mugimendu ekonomiko edota kontablen inguruko azalpenak eskatzeko eskubidea ere badu boluntarioak.

9. Boluntarioen gisa parte-hartu duela adierazten duen aitortpena jasotzeko eskubidea.
10. Norberaren boluntario lanak bere bizitza pribatua edota oinarrizko egin-beharrak ez oztopatzeko eskubidea.
11. Boluntarioen Eskubide eta Betebeharren Gutunean jasotako guztia ezagutzeko eskubidea.

### Eginbeharrak:

1. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala errespetatzekoa eta burutzen duen borondatezko parte-hartzea, Justizia Sozialaren eta gizarte zuzenago eta berdintasunezko baten argitan egiteko konpromisoa.
2. Burutzen duen parte-hartze boluntarioa berdintasunez eta justiziaz egiteko betebeharra, bazterkeriarik eta arraza, genero, erlijio edo sinesmen, egoera sozial edo iritzi politikoengatik jokabide diskriminatzailearik egon ez dadin.
3. Fundazioaren helburuen aurkako jarduerarik ez egitea.
4. "Boluntarioen Eskubide eta Betebeharren Gutuna" ezagutu eta betetzea.
5. Borondatezko parte-hartzea gauzaterakoan, jarduera hori baliabide, zerbitzu edota ekintzazailtza egitasmo bakoitzeko arduradunek zehazten dituzten irizpideen eta jasotako prestakuntzaren arabera egitea.
6. Borondatezko parte-hartzea Fundazioarekin hizartutako konpromisoen arabera egitea.



7. Borondatezko parte-hartzea oinarritzko konfidentzialtasun arauak errespetatuz egitea, zuhurtasuna eta sekretua bermatuz, gutxienez sekretu profesionalaren antzeko zuhurtasuna, eta Datuak Babesteko Legeak dioena betez.
8. Agindu zaizkion jardueretan Fundazio-ko lankideekin eta gainerako boluntarioekin errespetuzko jarrera izateko eginbarra.
9. Boluntarioen Eskubide eta Betebeharren Gutunak dioena ez betetzeak, boluntario izaera aldi-baterako edo betirako kentzea ekar dezake. Halako kasuetan, arau-hausleari haren ardurdun zuzenak idatziriko ziurtagiri baten bidez jakinaraziko dio gertaera. Arau-hausleak 15 eguneko epea izanen du Fundazioaren Proiektu Koordinatzaile-Kudeatzailearen aurrean errekurtsoa aurkezteko, eta Zuzendaritza-Batzordeak 5 eguneko epean emanen du behin betiko ebazpena.

### Enplegua:

Boluntarioetatik inork ez du, Fundazioarentzat eginiko jarduerengatik, inolako lehen-tasunik izanen Fundazioaren edota ekin-tzaitza sozialetako lan-posturen batean sartzeko orduan. Halako kontratazioetan lehen-tasuna izanen dute pobrezian edota gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak, betiere, egoera hori Fundazioaren Koordinatzaile-Kudeatzaileak aldiro egiaztatatu ondotik.

### Boluntario lanari buruzko

#### Foru Legea:

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren Boluntarioen Eskubide eta Betebeharren Gutunean aurreikusitako gabeko zerbait dagoenean, 2/1998 FORU LEGEA, martxoaren 27koan, xedatutakoan hartuko da aintzat.

## VIII. ISTRIPU-ASEGURUA

---

Boluntarioen parte-hartzea Gizakia Herritar Fundazioaren jardueretan istripu-aseguru baten babespean garatuko da 9/2006 FORU LEGEAren arabera, uztailaren 5ekoa, zeinak Boluntariotzaren 2/1998 FORU LEGEA, martxoaren 27koa, aldatzen duen.

## IX. IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOAK

---

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren egoitza, areto, baliabide, zerbitzu eta ekintzailletza sozial guztietan iradokizun eta erreklamazio postontzia egonen da.

## X. SARE SOZIALAK

---

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioak honako sare-sozialetan parte-hartzen du:

- a) Nafarroako Pobreziaren Kontrako Sarea:  
<http://www.redpobreza.org/>
- b) Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Elkartasunezkoaren Sarea (Reas):  
[http://www.economiasolidaria.org/redes/reas\\_navarra](http://www.economiasolidaria.org/redes/reas_navarra)
- c) Nafarroako Fundazioen elkartea:  
<http://www.fundacionesdenavarra.es/>

## XI. BAZKIDEAK

---

Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren bazkide izaera erdiesteko urtero gutxieneko kuota ordaindu beharko da, gutxienez 20,00€.

## XII. EKONOMIA ETA JARDUEREN MEMORIA. KANPOKO KONTU-IKUSKARITZA

---

Gizakia Herritar Fundazioak, urtero, Urteko Txostena argitaratuko du, Ekonomia eta Jardueren Memoria barne duena. Txosten hau, Fundazioko bazkide guztiei bidaliko zaie. Era berean, Kanpoko Kontu-ikuskaritza Txostena ere argitaratuko da, oso-osorik, Gizakia Herritar Fundazioren web-orrialdean.